



IGERIKETA

2025ko ARAUDIA

Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak EUSKADIKO XLII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOEN ekitaldia antolatuko du, Euskadiko Igeriketa Federazioekin lankidetzan, 2025ko maiatzaren 24an Gasteizen (Araba), Mendizorrotza Udal Igerilekuan. Hauxe duzue jokoen araudia:

1- PARTAIDETZA

Mutiletan 2011. eta 2012.urtean jaiotakoak hartuko dute parte eta nesketan 2012 eta 2013ean jaiotakoak.

Kirolariek lurralde historiko bakoitzean osatutako taldeetan hartuko dute parte. Partaideen eskola lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du ekintzan parte hartu

Selekzio bakoitzak errelebo-talde bakarra aurkeztu dezake.

Lurralde historiko bakoitzak nahi beste igerilari aurkeztu ahal izango ditu banakako proba bakoitzean, beti ere lurralde bakoitzeko bi onenen partaidetza ziurtatuta izango delarik, banakako probetan. Hauetaz gain, izena emate garaian denbora hobeak dituzten igerilariek parte hartuko dute froga bakoitzeko 16 igerilari osatu arte (bi serie), 100mko lasterketetan 3 izango dira bete beharreko serieak.

2024ko urriaren 1a eta 2025ko maiatzaren 19a bitartean egindako parte-hartze markak baliozkotzat hartuko dira.



Igerilari bakoitzak erreleboetan eta, gehienez, banakako bi probetan parte hartu al izango du, jardunaldi bakoitzean proba bat.

Euskadiko Igeriketa Federazioak serieen behin-behineko zerrenda argitaratuko du maiatzak 19an astelehena, bere web orrian (www.eif-fvn.org). Akatsen bat antzemanaz gero, maiatzak 20 asteartea, 12:00ak baino lehen adierazi beharko zaio aipatutako Federazioari. **Web orrian argitaratutako zerrenda ez da eraldatuko, erreklamaziorik onartu edo onartuko ez den kontuan hartu gabe.**

2- PROBEN EGITARAUA

1. saioa (25/05/24 10:00etan)				2. saioa (25/05/24 16:30etan)			
1.-	1500	Librea	Mutilak	15.	800	Librea	Neskak
2.-	400	Librea	Neskak	16.	400	Librea	Mutilak
3.-	100	Tximeleta	Mutilak	17.	50	Bizkarr.ige. IPC	Neskak
4.-	100	Tximeleta	Neskak	18.	50	Bizkarr.ige. IPC	Mutilak
5.-	200	Bizkarrekoa	Mutilak	19.	100	4 Estiloak	Neskak
6.-	200	Bizkarrekoa	Neskak	20.	100	4 Estiloak	Mutilak
7.-	100	Bularrekoa	Mutilak	21.	200	Tximeleta	Neskak
8.-	100	Bularrekoa	Neskak	22.	200	Tximeleta	Mutilak
9.-	200	Librea	Mutilak	23.	100	Bizkarrekoa	Neskak
10.-	200	Librea	Neskak	24.	100	Bizkarrekoa	Mutilak
11.-	200	4 Estiloak	Mutilak	25.	200	Bularrekoa	Neskak
12.-	200	4 Estiloak	Neskak	26.	200	Bularrekoa	Mutilak
13.-	4 x 100	Librea	Mutilak	27.	100	Librea	Neskak
14.-	4 x 100	Librea	Neskak	28.	100	Librea	Mutilak
				29.	400	4 Estiloak	Neskak
				30.	400	4 Estiloak	Mutilak
				31.	50	Librea ige. IPC	Mutilak
				32.	50	Librea ige. IPC	Neskak
				33.	4 x100	Estiloak	Neskak
				34.	4 x100	Estiloak	Mutilak
				35.	25	Librea ige. IPC	Mixtoa



3- IZEN EMATEA

Lurraldeetako Federazioek bakoitzaren selekzioko partaideen izen-emateak FEDERATIO sistemaren bidez egingo dute, beranduenez **2025ko maiatzaren 19an 12:00etarako**.

Federazioek izen-zerrenda indibidualetan sartu beharko dituzte errelebo-probetan bakarrik parte hartuko duten igerilariak.

4- LEHIAKETA FORMULA

Serieak marken arabera osatuko dira.

Erlojuaren aurkako sistema erabiliko da. Kronometrajea elektronikoa izango da, 25m IPC igeriketa libreko proban ezik, honetan eskuz egingo da.

5- BAJAK

Bajak idatziz eta inprimaki ofizialean adieraziko dira lehiaketako idazkaritzan, gutxienez jardunaldia hasi baino **ordu erdi** lehenago.

Ordezkariek edo taldeko entrenatzaileak aurkeztu beharko ditu bajak (lehiaketa honetarako kreditatuta egon beharko dute), eta bertan seriearen zenbakia, igerilariaren izena eta kalea adierazi beharko dira.

Baja aurkeztu gabe aurreikusitako proba etortzen ez den igerilariak **ezingo du saioko beste probetan parte hartu (errelebozkoetan ere ez) eta ez du ordezkorik izango**.

6- SAILKAPENAK ETA PUNTUAZIOAK

Proba bakoitzean MUTILEN eta NESKEN banakako sailkapenak egingo dira.

Igeriketako egokituko probetan sailkapena multidesgaitasun taulan lortutako puntuen baitan egingo da.

7- GARAIKURRAK ETA SARIAK

Domina bana jasoko dute proba eta kategoria bakoitzeko lehen hiru sailkatuek.



8- EZBEHARREN AURREAN

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkeror nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

9- AZKEN OHARRA

Euskadiko Igeriketa Federazioak Lehiaketa Zuzendaria izendatuko du lehiaketa honetarako. Bera izango da agintari gorena bai lehiaketaren antolaketan eta baita lehiaketako Epaile Arbitroaren eskumenari ez dagozkion erreklamazioak konpontzeko ere.

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontuak argitzeko, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- A. 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena.
- B. 125/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- C. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziiplina-araubideari buruzkoa
- D. AGINDUA, 2025eko urtarrilaren 8koa, Jaurlaritzako Lehenengo Lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuarena, 2025eko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLII. edizioaren deialdia egiteko dena.
- E. Ebazpena, 2025eko otsailaren 4koa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, 2025eko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLII edizioko lehiaketako epaile bakarra izendatzen duena.
- F. Euskadiko Igeriketa Federazioko arautegiak agindutakoa.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkeror, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.